BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

5309

EBAZPENA, 2012ko azaroaren 7koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat laguntzen luzapen-eskabideak ebazten dituena, erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei 2011ko ekitaldian emandako bekak luzatzeko.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak 2011ko irailaren 27ko Ebazpenaren bidez (2011-10-29ko EHAA, 197. zk.), Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat laguntzak eman zituen, 2011ko ekitaldian erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko.

Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat laguntzak (erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko diren laguntzak) arautzen dituen otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuaren 3. artikuluan (2007-03-12ko EHAA, 50. zenbakia) eta deialdia egiten duen Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2011ko maiatzaren 11ko Ebazpenaren 2.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, luzapenei zuzendutako zenbatekoa ezin izango da 678.000 eurokoa baino altuagoa.

Azkenik, otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuaren 2.3 eta 8.4 artikuluetan eta, alde batetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikuluan (2008-07-10eko EHAA, 131. zenbakia), eta bestetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikuluan (2010-04-09ko EHAA, 65. zenbakia) ezarritakoarekin bat etorriz, eta aurkeztutako luzapen-eskabideak aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat laguntzen luzapen-eskabideak onartzea, erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei 2011ko ekitaldian Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariak 2011ko irailaren 27ko Ebazpenaren bidez emandako bekak luzatzeko. Ebazpen honen eranskinean elkarte onuradunak, laguntzen zenbatekoa eta beste ezaugarri batzuk jasota daude.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu

eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa jarri eta hiru hilabeteko epean ebazpenik ematen ez bada, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea zabalik geldituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 7a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

ERANSKINA

NBE BEKAK 2011N –ONARTUTAKO LUZAPEN-ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Herrialdea	Lankidea	Bulegoa	Zenbatekoa
NBE-2011BA/0002	Hegoa / Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua	Peruko Errepublika	Olatz Domínguez Hernández	ONU mujeres Perú	15.000,00 €
NBE-2011BA/0003	Hegoa / Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua	Ekuadorko Errepublika	Maria Florencia García Paz	ONU mujeres Ecuador	15.000,00 €
NBE-2011BA/0005	Hegoa / Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua	Brasilgo Errepublika Federala	Miren Saiz Alzugaray	ONU mujeres Brasil	15.000,00 €
NBE-2011BA/0006	Hegoa / Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua	Ekuadorko Errepublika	Leire Beiztegui Amor	ONU mujeres Ecuador	15.000,00 €
NBE-2011BA/0007	Hegoa / Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua	Ekuadorko Errepublika	María Manuela Farina	ONU mujeres Ecuador	15.000,00 €
NBE-2011BA/0008	Hegoa / Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua	Ekuadorko Errepublika	Elena Calvar Herreno	PNUD/ART Ecuador	15.000,00 €
NBE-2011BA/0009	Hegoa / Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua	Boliviako Estatu Plurinazionala	Christian Omar Adriazola Saldivar	PNUD/ART Bolivia	15.000,00 €
NBE-2011BA/0010	Hegoa / Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua	Ekuadorko Errepublika	Flavio William Tamburrano	PNUD/ART Ecuador	15.000,00 €
NBE-2011BA/0011	Hegoa / Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua	Uruguaiko Ekialdeko Errepublika	Alberto Hecht Aparicio	PNUD/ART Uruguay	15.000,00 €
NBE-2011BA/0029	Unesco Etxea	Ekuadorko Errepublika	Ainhoa Mingolarra Garaizar	Unesco Ecuador	18.217,03 €
NBE-2011BA/0030	Unesco Etxea	Indonesiako Errepublika	Daniel Ruiz de Garibay	Unesco Indonesia	15.000,00 €
NBE-2011BA/0033	Unesco Etxea	Txileko Errepublika	Juan Luis Iturria Gallego	Unesco Chile	15.000,00 €
NBE-2011BA/0036	Unesco Etxea	Kanbodiako Erresuma	Beatriz Puerta Santos	Unesco Camboya	15.000,00 €
NBE-2011BA/0037	Unesco Etxea	Kanbodiako Erresuma	Nerea Ruiz Fuente	Unesco Camboya	15.000,00 €
NBE-2011BA/0039	Unesco Etxea	Ekuadorko Errepublika	Gorka Yarritu Corrales	Unesco Ecuador	15.000,00 €
NBE-2011BA/0043	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Kolonbiako Errepublika	Ander Arcos Alonso	PNUD / EV Colombia	15.553,38 €
NBE-2011BA/0045	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Panamako Errepublika	Eider Maitane Pérez de Heredia Goñi	ONU mujeres Panamá	15.000,00 €
NBE-2011BA/0048	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Ekuadorko Errepublika	José Antonio Martín Erquizia	UN-HABITAT ROLA - Ecuador	15.000,00 €
NBE-2011BA/0049	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Peruko Errepublika	Inés Salterio Leis	FAO Perú	15.000,00 €
NBE-2011BA/0051	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Hondurasko Errepublika	Amaia Ugarte Prieto	ONU mujeres Honduras	15.000,00 €

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Herrialdea	Lankidea	Bulegoa	Zenbatekoa
NBE-2011BA/0052	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Ekuadorko Errepublika	Ettore Papa	FAO Ecuador	15.000,00 €
NBE-2011BA/0054	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Paraguaiko Errepublika	Unai Iturmendi Aguirrebeitia	FAO Paraguay	15.000,00 €
NBE-2011BA/0056	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Mexikoko Estatu Batuak	Lucía Sanmiguel Tejedor	PNUD México	15.626,35 €
NBE-2011BA/0057	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Txileko Errepublika	Elena Aguayo Rico	PNUD Chile	15.000,00 €
NBE-2011BA/0058	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Panamako Errepublika	Ander Cazenave Arriola	PNUD - RCLAC Panamá	15.000,00 €
NBE-2011BA/0059	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Panamako Errepublika	Borja de Aramburu Mendes	PNUD - RCLAC Panamá	15.000,00 €
NBE-2011BA/0060	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Txileko Errepublika	Elisabetta Ferrarini	PNUD Chile	15.000,00 €
NBE-2011BA/0061	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Panamako Errepublika	Margarida Pons Romeu	PNUMA Panamá	15.000,00 €
NBE-2011BA/0062	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Panamako Errepublika	Maider Estefanía Martín Pérez	PNUMA Panamá	15.000,00 €
NBE-2011BA/0063	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	Dominikar Errepublika	Alberto Alejandro Ibérico Hervias	PNUD República Dominicana	15.000,00 €
BE-2011BA/0064	EHU-Nazioarteko Lankidetza Ez Zentralitatua Masterra	El Salvadorko Errepublika	Elisa Parriciatu	ONU mujeres El Salvador	15.000,00 €